Konstruktibismoa Jean Piaget filosofo eta psikologoaren lanak ditu erreferentzia nagusi.

Gaur egun, ikuskera eraikitzaileak pisu handia dauka hezkuntza eremuan. Hortaz, irakasleak, egunerokotasunean, metodo eta jarrera hauek erabiltzea gomendatzen dute. Hezkuntza premia bereziei dagokionez, gaitasun handiko ikasleekin erabiliko lirateke ikuskera hau. (Trébol, 2004).

2.3. Egokitzapen curricularra aplikatzeko teknikak

Hasteko, oroitarazi behar da, behar bereziak dituen norbait ikaskuntza normalizatu batean (ikastetxe arruntean) integratzea berez estrategia bat dela, eta oso arrakastatsua; ikasle hauen irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ahalik eta integratuen

egiteak ondorio positibo asko baitakar. Hala nola ikasleen sozializazioa eta bereizkeriaren ekiditea.

Ondoren, hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleekin lanean diharduten irakasleak jarraitu beharreko teknika edo metodo psikopedagogiko batzuk aurkeztuko dira. Hau da, Egokitzapen Curricularra daukaten ikasleekin lan egiteko aholku batzuk:

- Lehenik eta behin, kasu bakoitzak behar propioak dituela berresatea komeni da. Kasu bakoitza dagokion indibidualizazioarekin tratatu behar da, bere izaera, behar zehatzak, ingurua... kontuan hartuz.
- Egokitzapen curricularra daukan, eta beraz behar bereziak dauzkan ikaslearekin lanean diharduten profesional guztien arteko elkarlana eta komunikazioa ezinbestekoa da ere, lanak batu eta bideratzeko.
- Behar bereziko ikaslea klasean gehiago integratzeko, eta ikaskideak honen egoera ulertu eta errespetatzeko, sentsibilizazioa ezinbestekoa da. Horretarako, oso aproposa da irakasleak haien ikaskidearen azalean jartzea. Horrela haien ikaskidearen gaitza izatean sentitzen dena jakingo dute, eta gehiago errespetatuko dute.

Ondorengo taulan, zehatzagoak diren teknikak aurkeztuko dira. Huetako batzuk proposagoak izango dira kasu batzuentzako eta beste batzuk besteentzako. Dena den, kasu bakoitzeko teknika aproposenak zein diren aurrerago zehaztuko da. Teknikak hauek Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroko webgunean aurkitzen dira (2013).

Taula 5. Autonomia pertsonala eta soziala bultzatzeko teknikak

- | |
|---|
| <ul style="list-style-type: none"> • Ingurumen-baldintzak kontrolatzea egokitzapena errazteko • Behar denean, jokabidea aldatzeko teknikak erabili . adibidez, serio eta isilik geratu, barre egiteko txantxa bat egin, ziria sartu ... • Irakasleengandik sintonia emozionala. • Ikaslearen mailari egokitutako eskakizunak. • Ikasleen arteko interakzioa bultzatzen duten egoerak bilatu . • Laguntza eta irakaskuntza(puntualea edo beti) higiearekin, elikadurarekin ... • Gehiegizko babesa saihestea, autonomia bultzatzen duten egoerak sortu. |
|---|

Taula 6. Kognitiboki garatzeko teknikak

- Estimulazio sentsoriala: ikusmen, entzumen, ukimen, dastamen eta usaimena.
- Laguntza estrategien erabilera aproposa (fisikoak, sentsorialak, ahozkoak, keinuzkoak ...)
- Ohitura eta gaitasun zehatzen ikaskuntza bultzatzea inguru naturalean.
- Ikaskuntza berrienganako sarbidea erraztu (argibide edo instrukzio errazak, hiztegi ulergarria, euskarri sinbolikoak edo irudiak ...)
- Konkretutik abiatu (argitu zer eta nola zergatia baino lehen. Aspektu funtzional eta garrantzitsuak)
- Maila ezberdinetarako joko esperientziak; taldekakoa, funtzionala, fikziozkoa, eraikitzeak ...
- Material gehigarriak prestatuak izatea, eta baita hauek lantzeko espazio eta metodo bat.

Taula 7. Linguistikoki, komunikazioa garatzeko teknikak

- Ikaslearen seinaleei erantzuna ematea, hauei komunikazio intentzioa emanez.
- Inguruko laguntzak komunikazioa hobetzeko (laguntza bisuala ...)
- Irakaslearen arreta zuzena hizkuntza eta entzumenaren inguruan, bi moduz landuz: 1- ariketa formalak (hizkuntza ariketa zuzenduak). 2- ariketa funtzionalak (komunikazio egoerak)
- Behar izanez gero, irakurketa funtzionalerako teknikak erabili (irudiak, etiketak ...)
- Doitze mekanismoen erabilera (hizkera zuzena, erraza, esaldi motzak, intonazioa erabili ...), ikaslearen garapen maila kontuan hartuz.
- Ulermenari garrantzia gehiago ematea zuzentasunari baino, irakur-idazketa prozesuaren hasieratik.
- Komunikazio gaitasun zehatz batzuen gaitasuna (eskatu, deuseztatu, informazioa eskatu eta eman, elkarrizketa bat hasi eta mantendu, txandak errespetatu,) garatu egunerokotasunerako.
- Bestelako komunikazio sistema baten ikaskuntza.

Taula 8. Oreka pertsonala garatzeko teknikak

- Segurtasuna, konfiantza eta afektua bultzatzea klima aproposa sortuz (hurbila, lasaia, lagunkorra ...)
- Ikaslearenganako erlazio ona bultzatzea, afektua eta errespetua erakutsiz.
- Errutinetan, inguruan, ariketetan, pertsonetan ... aldaketa posible bat izatekotan, hauen ulermena indartzeko informazioa aurretik ematea.
- Ikasleen gaitasunak, motibazioak eta interesak kontuan hartuz ariketa ezberdinak diseinatzea.

Taula 9. Integrazio soziala garatzeko teknikak

- Eguneroko ariketetan interakzio egoerak sortzea (elikatzean, garbitzean, txukuntzean, lanean ...)
- Zentzumen estimulazioa
- Helduekin eta adin berekoekin elkarlanean aritzeko joko eta ariketetan parte hartzea.
- Sentimenduak eta emozioak (alaitasuna, tristura, haserrea, mina ...) adieraztea errazten duten egoerak sortzea.

3. GARAPENA: JATORRIZKO IKUSKERA HISTORIKOAK EDO KONTZEPTUALAK.

3.1. Kasu ezberdinenganako esku-hartze orokorra.

Puntu honetan, irakasleek haien klaseetan aurkitu ditzaketen kasu ezberdinei (ohikoenak) aurre egiteko, eta haien egokitzapen curricularra klasean aurrera eramateko, kasu bakoitzari komenigarrien zaizkien teknika psikopedagogikoak zehaztuko dira. Horretarako, kasu bakoitzeko taula bat aurkezten da. Taula hauek sortzeko Nafarroako Hezkunza Bereziko Baliabide Zentroak ematen dituen gomendioak edo jarraibideak kontuan hartu dira (N.H.B.B.Z., 2013).

Taula 10. Urritasun psikologikoa.

Larritasun maila ezberdinak daude eta beraz, bakoitzarekin jokabide ezberdina eramango da.

- Egokitzapen Curricularra egiteko orduan, momentuko gaitasunetatik abiatu behar gara.
- Irakasle eta arbelatik ahalik eta hurbilen izatea komeni da, arreta ez galtzeko.
- Ekintzak pautatzea, hau da, ariketak pausoka planteatzea.
- Ekintzak (ariketak) burutzeko denbora malgutzea. Haien erritmoa mantsoagoa baita.
- Irakasleak zuzeneko laguntza eskaini eta ematea.
- Ahal izanez gero, P.T.-a berarekin egotea egun osoan zehar. Bestela, ahal duen bezainbeste. Ikasle hauek laguntza handia behar baitute.
- Integrazioa/ inklusioa sustatu behar da. Ikasle hauek marjinazioa sufritzeko arrisku handia baitute.
- Azalpenetan euskarri bisualak erabiltzea, ulermenari laguntzeko.
- Ikaskuntza funtzionala bultzatzea, beraien errealitateetik hurbil dauden egoerak islatuz (adbz: gauzak erostearen antzezmena erostetak egiten ikasteko eta matematika lantzeko ...)
- Berdinen imitazioaren bidez ikaskuntza bultzatzea. Ikasle mota hauekin aproposa da.
- Talde kooperazioan lan egitea bultzatzea (ikaskuntza eta integrazioa aldi berean)
- Ikasle hauen garapen psikologikoa ez doa bat garapen fisikoarekin, eta egokitzapen curricularra egiteko orduan hori kontuan hartu behar da.
- Berdinen arteko tutorizazioa bultzatzea, hau da, haren ikaskide baten tutorizazioa edo laguntza. Tutorea aldetzen joaten delarik.

Taula 11. Garapenaren nahaste orokorra (Asperger, Autismo ...)

- Ekintzen segida aurrez esatea komenigarria da.
- Gai errekkurreteetatik (esaldien eta mugimenduen errepikapenak ...) erreskatatu behar zaie haien arreta piztuz.
- Rol playing erabiltzea komenigarria da gizarteratzea sustatzeko; giza arauak ulertzeko eta haien rola bereganatzeko. Azken finean, errealitatearen zentzua hurbiltzeko.
- Elkarri hitz egiterakoan, begietara begiratzea saiatu behar gara.
- Normalean, ikasle hauek, indargune bat daukate. Hau da, zerbait gustatzen zaiena eta ongi egiten dutena. Irakasleek indargune hau aprobetxatu eta indartu behar dute, eta hau erabili Curriculumeko gai ezberdinak bereganatzeko.
- Ikasleak bere garapen propiozeptiboaren kontzientzia garatzea bultzatu behar da. Horretarako bideratuak dauden ariketak eginez.
- Haien isolamendua ekiditeko, taldeko elkar ekintza bultzatzea komeni da.
- Komunikazio egoerak sortu behar dira, beraien hizkuntza Feed Back esanguratsu batean garatuz.

Taula 12. Gaitasun handiko ikasleak

- Curriculumaren zabaltze programa klase barruan; hau modu orokorrean egiten ohi da, ahal duten ikasle orok pobesteko. Normalean, material gehigarria (ariketa sakonagoak, dibertsifikatuak ...) klaseko txoko batean kokatzean datza, eta klaseko ariketak lehenago bukatzen dutenak, txoko horretara doazte lanean jarraitzeko.
- Ikasle hauen sormena handia izaten ohi da. Hau garatzeko ariketak egitea komeni da.
- Ikasle hauenganako Egokitzapen Curricular indibiduala egitean, helburuak sakontzen dira ("objetivos de excelencia").
- "Ezagutzak aberasteko programa instrumentala". Fewerstein autore ospetsuak orain dela urte asko asmatutako metodoa da, ariketa oso aproposak dituena eta gaur egun oraindik asko erabiltzen dena.
- Bikoteka esertzen badira, ikasle hauek gaitasun handiko beste ikasleen parean esertzeak motibatzen ditu. Dena den, talde kooperatiboetan (heterogeneoak diren taldeetan) lan egitea aproposagoa da kasu batzuetan. Kasuan kasu.

Taula 13. Portaeraren nahasteak; ohikoena (TDAH)

- *AGHA-TDAH (Arreta Galeragatiko eta Hiperaktibitateagatiko Asaldura-Trastorno de Deficit de Atención e Hiperactividad)*
- Irakaslearengandik eta arbelatik hurbil jartzea komeni da. Gainontzeko estimuluak ekiditeko.
- Ariketen instrukzioak ematerakoan, hauek errepikatu berari pertsonalki zuzentzen, eta, behar izanez gero, errepikatu.
- Ariketak pautatzea, hau da, puskaka ematea, eta puskak handitzea (curriculum sarbiderako Egokitzapen Curricularra).
- Arreta mugatuta dutenez, 30-45 minuturo mugitzeko lanen bat bidaltzea komenigarria da. Adbdz: komuneko paper bila joatea ...
- Azterketetan bakarrik galdera nuklearrak (bakarrik garrantzitsuenak) galdetzea lagungarria da.
- Stroop frogara eta beste batzuk egitearekin ikaslearen gaitzaren neurria antzeman dezakegu.
- Irakaslearen haienganako jokaerarako, kontutan hartu behar da auto-kontrol gutxi dutela, oso inpultsiboak direla, eta honek haien jokaeran ondorioak dituela (haserreak ...).
- Ikasle hauekin, arauen errepikapena ezinbestekoa da. Hauek paretetan zehar dagokien tokian jartzea ere komenigarria da.

Taula 14. Ezgaitasun motorea

- Gehienetan sarbiderako egokitzapen curricularra daukate ikasle hauek. Baina batzuetan, beste ikasleak baino mantsoago doazte eta berezko egokitzapen curricularra egin behar zaie.
- Ezgaitasun mailaren arabera, posible da zaintzaileak behar izatea, irakasleek eskatuko dute, eta baita hauekin elkarlanean aritu ere.
- Traba edo oztopo arkitektonikoak ekiditu behar dira bai klasean eta baita ikastetxean ere. Eta haien materiala egokitu askotan (formatua, tamaina).
- Klase osoarekin sentsibilizazio ariketak egitea oso komenigarria da, horrela ikaskideak hobeto ulertzeko gaitza eta behar diren laguntzak.
- Ikasleari materialei iristeko tresnak eta laguntzak eskainiko dizkiogu. Adibidez, kasilleroa izatekotan, hau eskura edukitzea ...
- Ikasle hauek autoestimu arazoak izaten ohi dituzte. Hau ekiditeko, haien ahalegina baloratzea oso garrantzitsua da.
- Ateraldi egokituak prestatzea oso lagungarria da haien bizipozerako. Ahal bada, ateraldi hauek ezintasun berdina edo bestelakoa duten ikasleekin egitea komeni da.

3.2. Ikusmen urritasuna duen kasu errearen egokitzapena aztertzen

3.2.1. Pauso ezberdinak

Egokitzapen curricular bat egiterakoan, pauso ezberdinak eman behar dira; ikaslearen datuak bildu behar dira, ebaluazio psikopedagogikoa egin behar zaio, eta azkenik, egokitzapen curricularra diseinatzeari ekiten zaio.

Ondoren, kasu errearen batetan oinarrituta, pauso guzti hauen garapena aurkezten da.

3.2.1.1. *Ikaslearen datuak (egokitzapen curricularra egiteko)*

Atal honetan behar bereziko ikaslearen inguruko informazioa bilduko da. Horretarako, bi atal nagusi bereizten ditugu; informazio familiarra eta informazio edo garapen psikologikoa.

Informazio familiarra

Nahia etxean ama, aita eta bere anaia zaharra Mikelekin bizi da. Mikelek hamaika urte ditu, Nahiak baino lau gehiago eta ikastetxe berdinean ikasten du, eta ikastetxean asko lagundu eta babesten du bere arreba.

Gurasoak oso inplikaturik daude Nahiaren kasuarekin, eskolarekiko jarrera irekia agertzen dute eta harreman hurbila mantentzen saiatzen dira ahalik eta informatuen egoteko. Hala ere, askotan tutoreari jarrera hau estugarria egiten zaio gurasoen aldetik presioa sumatzen duelarik. Nahiaren patologia txarrera egiteko aukera dagoelako beldurtuta daudela pentsatzen du tutoreak eta horrek Nahiarekiko gain-babesa ekartzen diela.

Etxeko egoerari buruz, esan, gurasoek diotenez, Nahia nahiko independentea dela, hau da, jada etxea ezagutzen duenez nahiko ongi orientatzen da, bertan mugitzeko eta eguneroko ekintzetarako ez du aparteko laguntzarik behar.

Informazio psikologikoa. Garapen psikologikoa: eskola garaia

Nahiak bere garapen motorrari dagokionean, ez du arazo gehiegirik, gorputz eskema kontrolatzeko ez du arazo gehiegirik. Poliki-poliki eskola ezagutzen doa eta hasieran laguntza handiagoa behar zuen arren, gero eta arazo gutxiago ditu orientatzeko eta mugitzeko, pixkanaka inguruarekiko eta bere buruarekiko konfiantza hartzen baitoa.

Aipatu beharra dago Naia gaixotasun luze eta gogor bat pasatzetik datorrela eta Ikusmena galdu berri duela gaixotasun honegatik. Beraz, aurten, ikasturte oso bat klasera joan gabe egon eta gero, kurtso hasiera gogorra egin zitzaion. Baina esan bezala, azkar hobera doa, konfiantza eta alaitasuna berreskuratuz.

Alor afektiboari dagokionez, aipatu bezala, gurasoen aldetik oso babestua dago eta harreman estua dute. Anaiaren aldetik ere, eskolan nahiko laguntzen dio eta nabari da jantokian, atsedendian ... erne egoten dela. Lagunei buruz hitz egiten badugu, gelan nahiko integratua dagoela esan dezakegu baina lagun batzuekin beste batzuekin baino nabarmenki harreman gehiago daukala; bere txiki-txikitako lagunekin askoz harreman gehiago dauka eta eskolan ezagutu dituen neska-mutil berriein gutxiago harremantzen da. Hala ere, bere betiko lagunekin oso ongi moldatzen da eta asko laguntzen diote.

Aipatu behar da gelako ariketa orokorretan ez dela gehiegi inplikatzeko, hau da, talde handian klase guztia inplikatu behar duen ekintzetan ez du gehiegi parte hartzen eta ez da bere ekarpena gehiegi nabari. Baina talde txikitik planteatutako jardueretan oso ongi aritzen da eta asko parte hartzen du.

Txikitatik musika oso gustukoa izan du eta ikaragarri gustatzen zaio edozein musika jarri eta dantzatzea. Gainera, orain herriko musika eskolan irakasle batekin pianoa jotzen ikasten hasi berria da eta oso gustura dago.

Gurasoen aldetik asko babestua dagoen arren, gustura eta seguru sentitzen bada gauzak berak bakarrik egitea gustatzen zaio, besteei edozertako gai dela erakusteko. Hala ere, inseguru sentitzen bada, ateraldietan adibidez, asko kikiltzen da eta autonomia maila asko jaisten zaio gauza askotarako laguntza eskatzen duelarik. Esan bezala, ikusmena orain dela gutxi galdu zuen eta ohitzeko oraindik asko falta zaio.

3.2.1.2. Ebaluaketa psikopedagogikoa

Ebaluazio psikopedagogikoa orientatzaileak egiten du. Tutoreak behar bereziren bat sumatzerakoan, orientatzaileari luzatzen dio kezka. Ondoren, orientatzaileak ikasle horren ebaluazioa egingen du, horretarako hainbat datu bilduz. Ebaluazio

psikopedagogikoan ikaslearen arazoa zehazten da, eta baita honi aurre egiteko proposatzen den hezkuntza erantzuna.

Jarraian, kasu konkretu honen ebaluazio psikopedagogiko errala aurkezten da:

Taula 15. Datu pertsonalak

Abizenak:	Izena: I.
Jaiotza data: .. / .. / ..	Tokia: Iruñea
Helbidea:	Telefonoa:
Herria:	
Ikastetxea:	Maila / Etapa: LHko 1go maila

Taula 16. Txostenaren arrazoia

Ikasleak dituen hezkuntza beharrak zehaztea, argitzea eta horiei eman beharreko erantzuna ere zehaztea.

Taula 17. Datu psikopedagogikoak

Ebaluazio psikopedagogikoaren laburpena eta diagnostiko ardatza:

Gaixotasun batengatik ikasturte bat eskolarizatu gabea egon den ikaslea da eta gaixotasun horren ondorioz itsu gelditu dena.

Akademikoki atzerapenik ez du azaltzen eta adimen arrunta omen dauka.

Bere diagnostikoa itsutasuna da. Hori dela eta, bere hezkuntza behar nagusia "Braille" ikastea da.

Horretaz gain, une honetan, desplazamendurako eta gauzen kokapenez ohartzeko laguntza behar du.

Hezkuntza erantzuna eta orientazioak:

Ikaslearen behar nagusia *curriculumera sarbide* edukitzea da, hots, braillez ikas-irakasteko prozesua izatea. Horrela izanik, ikastetxeak eman behar duen hezkuntza erantzuna modu horretan irakastea da, braillez ikas dezan baliabideak eta metodologia ezartzea, hain zuzen ere. Ikasleari dagokion hezkuntza erantzuna proposatzerakoan, ikastetxeko laguntza irakasleak ikasleari braille teknika erakutsiko dio eta ikasgela arruntean ikasgelako programazioa ikaskideekin batera aritzeko eta jarraitzeko beharrezkoak diren egokitzapenak prestatuko ditu, hau da, **sarbidezko egokitzapena** prestatzen eta berarekin irakasten saio batzuk arituko da. (Ikasle honek azaltzen dituen ezaugarriak, ezgaitasuna eta hezkuntza beharrak kontutan hartuta, eta CREENako langileen aholkularitza ere kontutan hartuta, Ikastetxeko ikasturteko aniztasun planaren antolaketan Hezkuntza Laguntza Unitateak ikasleak dituen saioetatik batzuk sarbidezko egokitzapenerako izatea proposatu du eta proposamen hori Koordinakunde Pedagogikorako Batzordeak onartu du, beharrezkotzat jotzen delako; beti ere kontutan hartuta ikaslearen beharra, hots, ikasleak sarbidezko egokitzapenaren beharra duela).

Astero CREENako ikusmeneko moduluko laguntza irakaslearekin koordinatuko gara, ikaslearen egokitzapenerako kontutan hartzeko aholkuak eta aholkularitza jasoko ditugularik.

Desplazamenduetarako, ikasgelan laguntzeko, patioan eta jantokian ere laguntzeko eta baita plastikarako materialak prestatzen laguntzeko ere zaintzailea dago. (bere funtzioak eta berarekin egindako programan zehazten direnak).

Ikusmen urriko ikasleekin kontutan hartzeko orientabideak irakasle guztiei pasa zaizkie idatzita (CREENA-

ko dokumentua).
<p><i>Baliabideak:</i></p> <p>Ikastetxeko laguntza irakaslea Zaintzailea Irakasleak ONCEn, CREENA-n eta eskolan moldatutako materialak. CRRENA-ko langileak maileguan utzitako materiala.</p>
<p><i>Txostenaren egilea:</i></p> <p>Orientatzailea eta Hezkuntza Laguntza Unitateko koordinatzailea</p> <p style="text-align: right;">2012-10-15</p>

Txosten honen edukia edo ebaluazio psikopedagogikoa eskura duten profesionalen dokumentazioaren isilpekotasuna bermatuko dute.

Espedientea zein unitate administratibotan gordetzen den, haren ardurapekoa izanen da zaintza eta ardura.

3.2.1.3. Esku hartzea

Behin ikaslearen beharrak ikusita eta hezkuntza erantzuna zehaztuta izanik, esku hartzea diseinatzen da. Hau da, norberaren curriculum egokitzapena.

Ondoren, kasu konkretu honen egokitzapen curricularreko informazioa islatuko da:

Esku hartzea:

Nahiak, gainerako bere ikaskideekin batera, eskolan gela arrunt batean ikasten du baina bere ikusmen urritasuna dela eta, aldaketa eta laguntza batzuk jasotzen ditu. Bere kasuan, ez dauka Curriculum Egokitzapen Indibidualik (CEI) baina bai Sarbiderako Curriculum Egokitzapena, hau da, materialak eta baliabideak aldatuz bere garapena hobetzeko egokitzapena, eduki eta helburu berdinak utziz.

- *Eskola espazioaren antolaketa:*

Hasteko, Nahiak gelako informazioa bereganatzeko eta hau behar den bezala hautemateko, egokitzapen batzuk behar-beharrezkoak dituela esan beharra dago. Hemen eskola espazioaren antolaketak parte hartzen du eta honen barruan, gela osoaren egokitzapenak, izan ere, hezkuntza laguntzarako espazioak gelatik kanpo, zein gela barruan hartu behar dira kontuan. Nahiak kokapen egokia du gelan egunerokotasunean aurki ditzakeen barrera, muga eta oztopoak ahal den neurrian ekiditeko eta bere beharretara egokitzeko. Leku hau argitsua, irakaslearen kokapenetik

hurbil eta arbelaren parean dago, eta era berean, esan behar da “U” forman jartzen direla, Nahiak bere gelakide guztiak ahalik eta hobekien entzun ditzan. Era berean, ez da izkinan esertzen (azken mahaian), baizik eta hurrengoan. Horrela marjinatuta sentitzeko arriskua ekiditen da.

Gainerako ikasleek bezala bere materiala uzteko espazioa ere badu baina bere kasuan espazioa zabaldu eta egokitua dago txoko bat beretzako utziz, izan ere, bere material gehiena ukimenezkoa da eta horrek gehiago okupatzen du, hala nola, erliebean edo braillez idatzita dauden materialak. Honek denak elementuen antolaketa finko bat ere eskatzen du, izan ere, materiala aldiro tokiz aldatuz gero oso desorientagarria izango litzateke Nahiarentzat.

- *Baliabide pertsonalak:*

Tutorea, P.T.-a, orientatzailea, laguntzailea eta CREENA-ko laguntzailea dira Nahiarekin diharduten profesionalak.

- *Baliabide materialak:*

Nahiak laguntza profesionala eduki arren, ikusmenaren bidezko informazioa jasotzeko aukera oso mugatua du eta horregatik ordezko bideak bilatu behar dira informazioa beregana iritsi dadin edo informazioa berak jaso dezan. Hau dela eta, Nahiak baliabide material espezifiko batzuk erabiltzen ditu. Jarraian azaltzen da zer nolakoa den material hori. Horretarako taula bat prestatu delarik:

taula 18. materialen sailkapena arloka

ARLOA	MATERIALA	ZERTARAKO
Matematika	- <i>Abako japoniarra</i> - <i>Erliebezko Geometriako irudiak</i> - <i>Erliebezko dominoa eta puzzleak</i>	- Kalkulua errazteko. - Geometriako irudiak eta ariketak egiten laguntzeko. - Ukimena garatzeko.
Inguruaren ezagutza	- <i>Hiru dimentsioko modeloak;</i> ingurune fisikoa (sumendia ...) eta ingurune biologikoa (giza eskeletoa, animalien errepresentazioa ...) - <i>Erliebean eginiko laminak edo bildumak</i> - <i>Mikrokapsulan eginiko ilustrazioak</i>	- Informazioa ukimenaren bidez jaso dezan. - Lana errazteko.
Hizkuntza	brailleko idazketa-irakurketarako materiala: - Berridatzitako testuak - Perkins makina (braille sisteman idazteko makina)	- Informazioa bereganatzeko. - Irakurketa eta idazketa beste era batez egiteko. - Ikusmen gaitasuna (%10-15) lantzeko.

	- <i>Egokitutako ipuinak</i> - <i>Lupa telebista</i>	
--	---	--

- *Ezarritako helburuak:*

Helburuei dagokionez, Nahiarekiko helburuak bi alderdi edo mailatan banatzen dira: maila akademikoa eta, autonomia eta integrazioa.

Maila akademikoari dagokionez, aipatu behar da bere gelakideen ikaskuntza helburu berdinak dituela, izan ere, Nahiak Sarbiderako Curriculum bat du, hau da, materialak eta baliabideak aldatzen zaizkio baina edukiak eta helburuak mantendu. Beraz, akademikoki Nahiak ez du aparteko helburu berezirik.

Integrazioa eta autonomiari dagokionez, ahalik eta egoera normalizatuena eskaintzea da helburua. Ahal den neurrian, besteek egiten dituzten ekintza berberak burutzea eta ikastaldean integrazioa lortzea. Umearen prozesua hurbiletik jarraituz, egunerokotasunean sortzen diren behar berriei aurre egitea eta egokitzea.

3.2.1.3.1. Banakako curriculum egokitzapena informazioa formalki islatuta

Ondoren, kasu errealaren egokitzapen curricularra aurkezten da. Bertan orain arte islatutako informazio guztia biltzen da, era funtzionalagoan (egokitzapen curricularren fitxa).

Aproposa da egokitzapen erreala ikusi ahal izatea, lehenago ikusitako informazioa hobe ulertu eta barneratu ahal izateko. Adibide 40. orrirarte luzatuko da eta haibat ataletan zatitzen da; ikaslearen ordutegia eta datuak, ikaslearen egokitzapen curricular indibidualaren plangintza (arloka banatuta), laguntzaren programazioa, metodologia, ebaluazio irizpideak, materialak eta jarraipena hurrenez hurren.

IKASLEAREN ORDUTEGIA *

Ikaslearen izena:
Jaiotze data:

Maila: LHko lgo maila
Tutorea:
Laguntza- irakaslea:
Zaintzailea:
Orientatzailea:

Ikastetxea:

Ikasturtea: 12-13
Egokitzapen data: 2012ko urria

Orokorrean, zein mailatan kokatuko zenuke?: Lehen
Hezkuntzako lgo mailan

goizetan

Saioak	Astelehena	Asteartea	Asteazkena	Osteguna	Ostirala
1	(MATEMATIKA)	MATEMATIKA (PT gela barruan)	EUSKERA	MUSIKA (gelan)	MATEMATIKA (PT gela barruan)
2	(NGURUNE)	EUSKERA (gelan)	INGURUNE (PT gela barruan)	EUSKERA	GORPUTZ HEZIKETA
3	(EUSKERA)	INGELESA (gelan)	INGELESA (gelan)	INGELESA	IRAKUR- IDAZKETA (PT laguntza gelan)
4	(GORPUTZ HEZIKETA)	IRAKURKETA IDAZKETA (PT laguntza gelan)	MATEMATIKA (PT gela barruan)	MATEMATIKA (PT gela barruan)	HA
5	INGELESA	HA (gelan)		PLASTIKA	INGELESA
6	EUSKERA	INGURUNE		PLASTIKA	INGURUNE

* Ordutegi hau alda daiteke ikastetxeko ikasleen beharren arabera. Abendu arte astelehen

hilabetan behin (aste batean) etorriko da.

Irudia 3. Ikaslearen ordutegia

Ikaslearen datuak

Aurretiazko eskolaratzea: ikaslea Haur Hezkuntzako lehenengo (09-10) eta bigarren mailan (10-11) ikastetxe honetan egon zen. 2011ko abuztuan gaixotasun bat zela eta ospitalean egon zen eta handik aurrera ospitaleko eta etxeko laguntza jaso izan zuen. Hala, pasa den ikasturtean ez da eskolan egon, etxean baizik.

Bilakaera pertsonala eta soziala: ikaslea gurasoen bigarren semea da eta aitaren lehenengoa. Bere garapen pertsonalean eta emozionalki gorabeherak izan ditu. 2011ko udan gaixotasuna harrapatu zioten eta, horren ondorioz, ikusmena galdu zuen. Egoera horretan gurasoek bere kargu hartu zuten.

Ikaslea joaten den hezkuntzaz besteko zerbitzuak: ikaslearen gaixotasuna dela eta, momentuz, astelehenetan goizez ez da ikastetxera etortzen ospitalera tratamendua jasotzera joaten delako. Horrexegatik etxean hiru ordutako laguntza badu.

Ikastetxean lanaldi osoa duen zaintzailea badu.

Familiarekiko kolaborazioa: oraingo familia kolaboratzailea agertu da. Batzuetan bere bila amona etortzen da, baina orain arte izandako bilerak informazioa elkarri trukatzeko gurasoak etorri izan dira.

Taula 10. I – ikaslearen kurrikulum- egokitzapen indibidualaren plangintza. Hizkuntza.

ARLOA: HIZKUNTZA	Ikaslearen gaitasunak (...egiteko gai da)	Arloarekiko aurkitutako premiak.
I. Ahozko komunikazioa	Normaltasunez komunikateko	Hizkuntza arloan, “Braille” hizkuntza menperatzeko beharra dauka. Beste ikasleek bezala, irakurketa eta idazketa ikasteko prozesuan dago.
II. Irakurketa	Irakurtzen hasten da.	Materialak egokituta izateko beharra dauka.
III. Idatzizko adierazpena	Idazten hasten ari da.	Idazteko makinan trebatzeko beharra dauka.
IV . Gramatika	Ikasgelakoekin batera aritzen da eduki aldetik. Momentuz gramatika ez dute asko lantzen, irakur-idazketako prozesuan murgilduta baitaude. Ikasleak bereizten ditu izen arruntak eta izen bereziak eta hauen hasieran hizki larria jarri behar dela.	

Taula 11. I - Ikaslearen kurrikulum- egokitzapen indibidualaren plangintza. Matematika.

ARLOA: MATEMATIKA	Ikaslearen gaitasunak (...egiteko gai da)	Arloarekiko aurkitutako premiak.
<ul style="list-style-type: none"> • <u>Zenbakikuntza</u> 	Zenbakiak ezagutzeko eta zenbatzeko (ikaskideek antzera).	Materiala egokituta izateko beharra.
<ul style="list-style-type: none"> • Kalkulua <ul style="list-style-type: none"> - Buru-kalkulua - Eragiketak 	Gehiago, gutxiago jakiteko. Adinari dagozkion eragiketak egiteko. Adinari dagozkion oinarrizko kontzeptuak jakiteko eta erabiltzeko.	Materialaren erabilera jakiteko eta erabiltzeko beharra.
<ul style="list-style-type: none"> • Neurriak 	Handia-txikia-ertaina Luzea, motza	Manipulatzeko materialaren beharra. Espazio ezagutzeko eta autonomia lortzeko beharra.
<ul style="list-style-type: none"> • Arrazonamendu logikoa 	Adinari dagokiona	
<ul style="list-style-type: none"> • Buruketak 	Adinari dagokion buruketa askatzeko.	
<ul style="list-style-type: none"> • Geometria 	Oinarrizko formak eta mailari dagozkionak ezagutzeko.	Behar orokorra bada, une honetan, materiala egokituta izatea eta erabiltzen jakitea.
<ul style="list-style-type: none"> • Informazioaren tratamendua 	Informazioa ongi erabiltzeko bere ezgaitasuna kontutan hartuta.	Materiala egokituta izatea. Curriculumean sartzeko egokitzapenean , informazioa ahoz esatea behar du, ahoz ekintza eta elkarrekintza arautu eta bideratu.

Taula 12. I - Ikaslearen kurrikulium- egokitzapen indibidualaren plangintza. Ingurune.

ARLOA: ingurune	Ikaslearen gaitasunak (...egiteko gai da)	Arloarekiko aurkitutako premiak.
<ul style="list-style-type: none"> ◆ Giza gorputza eta osasuna ◆ Izaki bizidunak ◆ Lurra planeta ◆ Ingurune naturalaren elementuak ◆ Giza ingurunea. ◆ Lana, energia eta makinak ◆ Informazioa, komunikazioa eta garraiobideak. 	Ikasleak materiala egokituta izango duen neurrian mailari dagozkion edukiak lantzeko gai da.	<p>Bai irakurgaiak baita lanereko fitxak ere egokituta izatea. Braille hizkuntzan dagoena argitzea komenigarria ez bada ere, une honetan, Braille idatzitako fitxetan agertzen dena (orrialdearen zenbakia, izenburuak eta egin beharrekoa, gutxienez) argitzea komeni ikusten da irakasleen segurtasuna bilatzeko.</p> <p>Denontzako egokitzapen prozesu eta garai honetan materialaren egokitzapena eta material hoein erabileran trebatzeko beharra dago.</p>

Taula 13. II – Laguntza modalitatea.

IRAKASLEA	ARLOA	SAIOAK			
		BAKARKA		TALDEAN	
		ikasgelan	Laguntza gelan	ikasgelan	Laguntza gelan
1. Ikastetxeko Laguntza irakasleak	Irakur-idazketa Matematika Ingurune	Ahal den guztietan modalitate honetako saioak izango dira.			
2. Etxerako laguntza irakasleak	Etxerako lanak Irakurketa eta idazketa	Etxean berarekin arituko da astean bi saioetan.			
Zaintzailea (ikusitako zaintzailearen programa)	Autonomia Desplazamenduak (patioa, jantokia, ikasgelen aldaketa, komunera...) Materialak egokitzen laguntza (plastikarako materialak, fitxa ezberdinak argitzen eta antolatzen lagundu...) Hezkuntza Laguntza Unitateak proposatuta zuzendaritzak bere funtzioen barruan dauden eta dagozkion eginkizunak ikaslearen egokitzapenean laguntzeko.	Zaintzailearen lana, orokorrean, talde barruan izango da, bai ikasgelan, bai patioan baita jantokian ere bai. Berarekin bakarrik desplazamenduetan arituko da. Ikasgelan barruan, taldean badago ere, bere ondoan dagoela, uneko ekintzak aurrera eramateko eta lantzen diren edukiei heltzeko beharrezkoa den laguntza emango dio.			

Taula 14. III - Metodologia. Ikaskuntza era (Ikaskuntzari aurre egiteko ikasleak dituen ezaugarriak).

	1	2	3	4	5		OHARRAK
• Arreta eta kontzentrazioa mantentzen zailatasunak ditu.			X			• Arreta mantentzeko gai da.	Ohituta egon da etxean laguntza izaten (“domiciliaria”) eta batzuetan arreta deitzen du.
• Lanak zuzenduta eta pautak emanda lana eginten du.	X					• Autonomia da lanean.	Bere ezgaitasuna dela eta, une honetan lanak oso bideratuta eta pauta zehatzak emanda lan egin behar du.
• Impulsiboa da. Hausnartu gabe hasten da lanean.				X		• Lan baten aurrean hausnarketa egiten du. Lana antolatzen du . Gogoetatsu da.	Lanarekiko jarrera ona erakusten du. Braille hizkuntza ikasten ari da eta arreta jartzen du horretan.
• Ez da saiatzen edukinak harremantzen.				X		• Arrazonamendua erabiltzen du. Ulertzen saiatzen da.	Une honetan egokitzapen prozesuan dago (bere egoera pertsonala, bere ezgaitasuna, bere eskolarizazioa...). Bere bizitza ulertzen saiatzen ari da.
• Lan berri baten aurrean erraz ematen du adore. Ez dakiela esaten du eta ez da saiatzen.					X	• Iharduera berrien aurrean estratejiak bilatzen ditu edo laguntza eskatzen du. Zailtasunak aukitu arren lanari eusten dio.	Lanean saiatzen da. Lanarekiko oso jarrera ona azaltzen du, batzuetan arreta deitu, hitz egin edota mugitzen bada ere.

B-NOLA ERAKUSTEN ZAIO IKASLEARI:

- Ikasleak zer dakien ziurtatzen da. (Abiapuntua) BAI EZ
- Zer ulertu duen galdetzen da askotan. BAI EZ
- Eduki bakoitzaren urratsak sekuentziazten saiatzen gara BAI EZ
- Eduki bakoitza era ezberdinetan azaltzen da. BAI EZ
- Azaldutakoaren adibideak jartzen dira eta eskatzen zaizkio. (Bere bizitzaren ingurukoak, hobe). BAI EZ
- Bere aurrerapenak baloratzen dira eta adierazten zaizkio. BAI EZ

Erabiltzen diren beste estrategia metodologiko batzuk gehitzen ahal dituzu.

- Bere ordutegia izan.
- Aldez aurretik aipatu saioan landuko dutena.
- Aldiro errekapitulazioak edota laburpen txikiak egin bere arreta bereganatzeko.
- Ahalik eta ludikoen eta motibagarrien izatea saioak.

EBALUATZEKO ERIZPIDEAK

- Ebaluaketa bere erreferentziako taldeko helburuetan oinarrituko da. Ikasle honek helburu eta eduki berberak landuko ditu baina beste material batekin eta beste metodologia batez.
- Ebaluaketa bai taldean baita laguntza gelan ere egingo da.
- Ebaluaketa ahoz eta idatziz egingo da.

ERABILITAKO MATERIAL KURRIKULARRAK

- ⇒ ONCE-tik bidalitako materialak.
- ⇒ CREENA-n egokitutako materiala.
- ⇒ Eskolan prestatutako fitxak.
- ⇒ Etxetik ekarritako irakurtzeko liburuak.
- ⇒ Eskolan moldatutako materiala plastikarako.
- ⇒ Franelograma
- ⇒ CREENA-k utzitako goma-orria gainean idazten edota marrazten dena nabarmentzeko.
- ⇒ CREENA-k utzitako matematikarako kutxa.
- ⇒ Ikasturtea aurrera joan ahala maileguan utziko dutena, prestatuko dena e.a.

Taula 15. IV – Jarraipena eta ebaluaketa.**EBALUAKETA ETA JARRAIPEN BILERAK****Data**

- 2012 / abendua / ebaluaketa saioan eta laguntza sainen errebisioa egiten denean.
- 2013 / martxo / ebaluaketa saioan eta laguntza sainen errebisioa egiten denean.
- 2013 / ekaina / ebaluaketa saioan eta laguntza sainen errebisioa egiten denean.
- Aurrekoan aipatutakoaz gain, ikaslearen jarraipena astero egingo da, astelehenetan lehenengo saioan, CREENAKo laguntza irakaslea, etxerako laguntza irakaslea, zaintzailea, ikastetxeko laguntza irakaslea eta ikastetxeko orientatzailearen artean.
- Ikastetxeko laguntza irakaslea eta ikaslearen tutorea astero, ostegunetan lehenengo saioan, koordinatuko dira ikaslearen jarraipena egiteko, egindako eta egin beharreko lana koordinatzeko eta elkarri laguntzeko.
- Ikasture honetan (12-13) ikaslea berria denez eta egoera irakasle guztiontzat berria denez, lehentasuna emango diogu egunez egun sor daitezkeen kezkak, zalantzak, arazoak bideratzen saiatzen. Horretarako Hezkuntza Laguntza Unitateak beharrezkoak diren bilerak proposatuko eta egingo ditu.

3.3 Egokitzapen curricularra klasean aplikatzeko metodoak

Hurrengo lerroetan, ikasle itsuekin esku-hartzean kontuan izan behar diren alderdiak adierazten dira. Alderdi hauek Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroak errazten ditu. (N.H.B.B.Z.2013).

3.3.1 Teknikak klaserako

- Jakin beharrekoa da, bi ikaslek ikusmen urritasun bera badute ere, ez dituztela zertan beharizan berak izan.
- Uneoro ekidin behar dira gehiegizko babesa edo paternalismoa eragiten duten jarrerak, zeren ikusmen urritasuna duten haurrak haurrago balira bezala hartzea edo iritzi, erabakimen edo zaletasunik gabekotzat jotzea besterik baitute eragiten.
- Garrantzitsua da irakasleak itsuen mundua ez ezagutzeak eman diezaiokeen beldurra gainditzea, eta horretarako, irakasle espezialistarekin komentatuko ditu gaiaren gainean sortzen zaizkion zalantzak.
- Ikusmenarekin zerikusia duten ohiko hiztegiko hitzak naturaltasunez, eta egoerak hala eskatzen duenean erabili behar dira, adibidez: begira hau, gero ikusiko dugu elkar, ikusi duzu filma?
- Ikasleitsu baten aurrean identifikatu egin behar dugu, ezin baikaitu ezagutu. Bestela, nor garen galdetzeko aukera eman behar diogu. “ezetz asmatu nor naizen” jolasa alde batera utzi. Lagundu behar zaio bere ikaskideak ahotsaren bidez identifikatzea.
- Hitz egin eta kasu emaiouzu ikasleitsuari. Bera ohartuko da hitz egiten diozunean beste alde batera begiratzen baduzu, erabat ohartzea baita hotsa nondik datorkion.
- Ez hitz egin ozen, eta ez pentsatu uneoro hari hizketan aritu behar duzunik. Elkarrizketak jarriotasun normala behar du.
- Komenigarria da elkarrizketaren bukaeraz ohartzea, ikaslea ez dadin hizketan bakardadean aritu.
- Normalean erabili ohi ditugun keinu eta adierazpideak erabiltzen jarraitu behar dugu, eta ikasleak egoera behar bezala ulertzeko nahitaezkoak diren hitzetan indar berezia jarri behar dugu.

- Komenigarria da altzarien banaketari dagokionez ahalik eta aldaketa txikienak egitea, ikasle itsuaren orientazioa ez oztopatzeko. Aldaketak egin behar badira, lehenbizi ahoz jakinaraziko zaio zein den espazioaren egituratze berria, eta ondoren, berak egiaztatu beharko du egindako aldaketa.
- Ahal den neurrian, bideak garbi utzi beharko dira, traban dauden motxila, liburu eta abarrak oztopo bat gehiago baitira ikasle itsua ikasgelan barna askatasunez mugitu ahal izateko.
- Ateak, leihoak ... oro har, beti egon beharko dira irekita edo itxita, ez erdizka, askoz ere zailagoa baita bestenez elementu horiek detektatzea.
- Ikaslea irakasletik hurbil jarri beharko da, lehenbiziko lerroetan, hurbileko espazioa egokituz berariazko materiala erraz erabili ahal izateko. Material hori horretarako espresuki jarritako altzarietan izanen da, apalategian, armairuan edo beste mahai batean. Egoera hori bada, ikasleak entzumenez jaso ahal izanen ditu urrutiago balego jaso ezin izanen lituzkeen ñabardurak, eta irakasleak harreman errazagoa izan dezake ikaslearekin.
- Ikaslea mugituko den ingurune fisikoaren (ikastetxea, ikasgela, jantokia, zerbitzuak, liburutegia ...) ezagutza espaziala eta hautemangarria eskaintzea. Erreferentziarako arau argiak ematea, adieraziz zehazki zein den objektuen kokapena, adibidez: “papera mahaiaren gainean dago” eta ez, “papera hor dago”.
- Modu jarraituan sustatzea ordena azturak, bai ohiko erabilerako materialei dagokionez, bai ikasleak erabiltzeko materialei dagokionez.
- Entzumena eta ukimena dira informazioa jasotzeko lehentasunezko bideak.
- Arbelaren erabilera eskatuko duten azalpen oro, ahoz deskribatu beharko du irakasleak, kontuan izanik funtsezko alderdi bat: irakasleak arbelaren laguntza grafikoarekin eginen duen azalpen deskribatzailea osatu egin beharko du irakurriz arbelean idatzitako guztia.
- Ikasle-gelakoek jardueraren batean parte hartu behar dutenean, eta bertako informazioa batez ere ikusizko materialean oinarritzen denean (diapositiba edo bideo emanaldia, bisita museo batera ...), irakasleak lehenago edo saioa bitartean egokitu egin beharko du, informazioaren aurkezpen multisentsorial bat egiten ahaleginduz.

- Ikastetxe barruan edo kanpoan talde jarduerak antolatzen direnean (hitzaldiak, emanaldiak, museoak ...), ikasle itsuari espazio bat erreserbatuko zaio denen aurrean.
- Jarduera orotan lehenbizi ahaleginduko gara ikasle itsuak egin behar duenaren ezagutza orokorra izan dezan, ondoren, prozesuaren azterketara pasatuko gara eta azkenik, landutakoaren sintesia egingen dugu.
- Eskolak ahalik eta aktiboena izan behar dira, ikasleak parte hartu dezan eta ahalik eta informazio gehien jaso dezan, ikasteko motibazioa garatuz. Ikerketa, behaketa eta esperimentazioa sustatuko dira.
- Ikusmen bidezko imitazioa eskatzen duen ikaskuntza oro pasiboki egin beharko da ikasle itsuaren aurrean. Azalpen sakona ere eman beharko zaio, eta ahal den guztietan, imitatu beharreko erredua ukitu ere egin beharko du.
- Ikasle itsuaren lan erritmoa errespetatu beharko da; motelagoa izanen da beste ikasleena baino, eta beraz, ondoko neurriak jaso beharko dira:
 - Liburuan bilatzeko denbora eta azalpen gehiago emanen zaizkio, orrialde zenbakia emanen zaio, ariketa zenbakia, non hasten den ariketa ...
 - Helburu bera betetzen duten baina garatzeko orduan konplexutasun maila txikiago izanen duten ariketak hautatzea.
 - Jarduerak egiteko denbora areagotzea, edo jarduera kopurua murriztea (ez ordea eman beharreko eduki kopurua), egiten dituen horiek gainontzeko ikaskideen denbora berean egin ahal izan ditzan.
 - Aurreratutako ezagutzak planifikatzea eta erraztea, adibidez: hurrengo gaien erabiliko duen ingeles hiztegia, gaien eskemak, irakasgaiaren egitura ...
- Azterketak egiteari dagokionez, komenigarria da:
 - Azterketak egiteko denbora %50ean areagotzea, beharrezkoa bada, edo jarduera gutxiago egiteko aukera aztertzea.
 - Ahozko azterketak proposatzea, aldez aurretik ikaslearekin adostu ondoren.
 - Azterketak Braille´n speak erabiliz egitea proposatzea, ondoren tinta bidez inprimatzeko.
 - Ikasleak erabiltzen duen euskarrian ematea beti azterketak (handitzeak, brailleen ...)

- Ikasleek erantzun beharreko galderen enuntziatua kopiatzea ekidin behar da.
- Erantzunen balioespenean pisu espezifiko txikiagoa eman behar zaio ikusizko edukia duten ezaugarriei, adibidez: irudikapen grafikoak edo jardueraren formatua aldatzea.
- Ikasle itsuari azpimarratu behar zaio laguntza naturaltasunez eskatu behar diola irakasleari zein ikaskideei. Ikasleak laguntza eskatzea ikusmen galdera onartzen ari delako adierazle argia da.
- Ikasle itsuak tarteko direnean, ikasle-irakasle komunikazioan ikaslearen adierazkortasuna txikiagoa da. Irakasleak adi egon behar du, isolamendu egoerak edo arreta gabeziak antzemateko.
- Baztertu behar dira ikasle itsuetan ohikoak diren estereotipoak: zabunkatzea, hatzak begietan sartzea edo auto-estimulaziorako edo isolamendurako aztura bitxiak.
- Ikasle itsuari egokitu behar zaion materialaren aurreikuspena egin behar duten irakasleek. Horretarako, irakasle taldeak ikusmen urrikoen moduluko irakasle espezialistaren aholkularitza izanen du, eta ikastetxeko laguntza irakaslearen dedikazioaren zati bat ere izanen dute, eskatutako materiala egiteko eta egokitzeko. Transkribatu edota egokitu behar diren materialak Word formatuan egotea abantaila handia da.
- Komenigarria da ikaslearekin esku hartzen duten irakasleen eta ikastetxeko laguntza irakaslearen arteko koordinaziorako bide egokiak ezartzea, egokitu edo transkribatu beharreko materialak behar besteko denborarekin entrega daitezen eta ikasleak behar ditueneko prest egon daitezen.
- Irakasle batek ikasle itsu batekin esku hartu behar duenean, oinarrizko planteamendu gisa komenigarria da lantaldean aritzea, lanak eta erantzukizunak tartekatzeke.

3.3.2. *Teknikak gorputz heziketa klaserako*

Gorputz heziketako irakasle batek ikasle itsu batekin topo egiten duenean, gorago aipatutako teknikez aparte, beste jarraibide batzuei ere kasu egitea komeni da.

Oroitu beharra dago ere, gorputz heziketako klaseetan ikasleak mugimenduan daudela eta beraz, itsua den ikasle batentzat zailtasunak areagotzen direla, arriskuak bezainbeste.

